

EUSKARA ZERBITZUA
EUSKARA MANKOMUNITATEA

Euskara ikasleendako dirulaguntzak: oinarriak

Oinarrien xedea.

Oinarri hauen xedea da Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren herritarrei dirulaguntza emateko modua arautzea.

Dirulaguntzaren gaiak.

Diruz lagunduko da 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31 arte egindako ikastaroen matrikula gastua. Kilometrajea, egoitza eta otordu gastuak ez dira diruz lagunduko. Dirulaguntza hauek, maila bakoitzari dagokionez, gehienez ere, hiru urtetan kobratu ahal izanen dira.

Diruz lagunduko dira Ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta informatika bidezkoak.

Ikasleek dirulaguntza aurreratzea eskatzen ahal dute, matrikulatzeko garaian. Dirulaguntza aurreratua kobratzea eskatzen dutenek deialdi honetan zehaztutako baldintzak eta eskatutako dokumentazioa bi epetan bete eta aurkeztu beharko dute: otsailean eta ikasturte amaieran.

Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.- Aurrekontuetan, gehienez ere, aurreikusi den diru-esleipena, behar den epean eta behar den moduan, aurkeztu diren eskaeren artean banatuko da, deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean betiere.

2.- Matrikularen % 100 ordainduko zaie baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei, beste erakunde batzuetatik kontzeptu berean jaso duten dirulaguntza kopurua kontuan hartuta.

Dena den, dirulaguntzen onuradunek ezin izanen dute 848 euro baino gehiagoko laguntzarik jaso deialdi bakoitzeko.

Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea otsailaren 1etik irailaren 15era bitartekoa izanen da. Epe hori luzaezina izanen da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskatzaileek honako dokumentazio guztia batera aurkeztu beharko dute Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko erregistroan (Basaburuko Udala. 31866, Jauntsarats) edo dagokien herriko udaletxe edo Euskara zerbitzuan:

- a) Eskaera orria behar bezala beteta eta eransten den ereduari jarraituta.
- b) Eskatzailearen nortasun agiriaren kopia. Aurreko urteetako eskatzaileek ez dute aurkeztu beharko agiri hau.
- c) Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea osatzen duten herrietan erroldatuta egotearen ziurtagiria.
- d) Euskaltegian eginiko matrikularen ordainagiria
- e) Euskaltegiaren agiria. Bertan honako hauek adieraziko dira: ikastaroaren hasiera eta amaiera datak, ordaindutako matrikula, izandako asistentzia, egindako urratsak edo mailak eta gaingitu diren ala ez.
- f) Aitorpena, helburu horretarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako eta haiek emandako dirulaguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebatzteke edo ebatzita dauden.

Hori dena zuzenean edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak aurreikusitako beste prozeduraren bat erabiliz egin ahal izanen da. Hona dokumentazioa aurkezteko helbideak:

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea

Asuncion, 7

31866 Jauntsarats (Basaburua)

Telefonia: 948 503035

Araitx, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Euskara Zerbitzua

Gabari etxea

31878 Mugiro (Larraun)

Telefonia: 948504400

Basaburua, Imotz, Odieta eta Ultzamako Euskara Zerbitzua

San Pedro, 8

31797 Larraintzar (Ultzama)

Telefonoa: 948305134

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Euskara Zerbitzua

Elbarren, 1

31880 Leitza

Telefonoa: 948510814

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak.

Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskatzen ahal dituzte dirulaguntzak, eta baldintzak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira:

- a) Diruz lagundutako ikastaroaren % 80an parte hartu duela frogatzea.
- b) Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea osatzen duten herrietan errolatuta egotea.
- c) Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearekiko eta Mankomunitatea osatzen duten udalekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea (Mankomunitateak ofizioz egiaztatuko du inguruabar hori eta behar den eginbidearen bitartez jasoko).

Baldintza hauek dirulaguntza aurreratua kobratzea eskatzen dutenek epe bakoitzean bete beharko dituzte. Horietako eperen batean ez badituzte betetzen goian aipatutako baldintzak, epe horretarako dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko dute.

Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea.

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun balioduneko epea emanen zaio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

Ebazpena.

Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko ebazpena Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko lehendakariak emanen du Mankomunitateak eginkizun horretarako sortutako Batzorde bereziaren irizpena ikusita.

Ebazpena eman eta ordaintzeko epea lau hilabetekoa da, gehienez ere; dirulaguntza esleitzeko ebazpena eman eta biharamunetik kontatzen hasita. Ebazpenean onartzen ez diren eskaerak ezetsizat joko dira.

Dirulaguntzaren ordainketa.

Dirulaguntzak ordainketa bakarrean pagatuko dira, haiek emateko erabakia hartu ondoren pagatu ere; banku transferentzia egingen da eskatzaileek adierazitako kontu korrontearen zenbakian.

Dirulaguntzak aurreratzea eskatu duten ikasleei bi zatitan ordainduko zaizkie, otsailean, ikasturteko lehenengo lau hilabeteen justifikazioa aurkeztu ondoren eta bigarren zatia, ikasturtea amaitzen denetik urria bitartean, eskatzen den ikasturteko azkeneko bost hilabeteak justifikatzen direnean. Banku transferentzia bidez egingen da eskatzaileak adierazitako kontu korrontearen zenbakian.

Dirulaguntzen itzulketa.

Dirulaguntza lortu ahal izateko bete behar diren baldintzaren bat faltsutu edo ezkutatu bada, edo eskatzaileak ez badu frogatzen ikastaroaren %80an parte hartu duela, jasotako dirulaguntza itzuli beharko du.

Bateragarritasuna.

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin. Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen dirulaguntza eskatu ahal izateko, derrigorrezkoa da 2025-2026 ikasturterako xede berbera duen Euskarabidearen dirulaguntza aurretik eskatzea. Euskara Mankomunitatearen dirulaguntza Euskarabidearen dirulaguntzaren osagarria izanen da, ez baitaiteke gain-finantzaketarik gerta; hortaz, bien artean gastuaren %100 gainditzen bada, Euskara Mankomunitateko dirulaguntza jaitsiko da portzentaje horretara iritsi arte.

Datuen babesa.

Eskatzaileen datuak babesteari buruzko abenduaren 23ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

Auzibidea.

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

Leitzan, 2026ko urtarrilean



Aintzane Arraiza Begiristain

Mankomunitateko Lehendakaria

Dirulaguntza eskabidea

Eskatzailearen datuak:

✓ Izen-abizenak:

✓ NAN:

✓ Helbidea:

✓ Posta kodea:

✓ Herria:

✓ Telefonoa:

✓ E-posta:

✓ Kontu korrontearen zenbakia:

2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31 bitarteko matrikula gastuak:

€

Data eta sinadura

ZINPEKO AITORPENA

Eskatzaileak hau aitortzen du:

- ☐ Ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
- ☐ Laguntza eskaera honetaz gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publikok edo pribatuk emana.
- ☐ Dirulaguntza eskatu diela honako erakunde hauei:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

- ☐ Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskaerarik eginez gero, mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, sinatzen dut